eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

ehu**kultura**



**Egitaraua** | Programa

# URRIA-ABENDUA
# OCTUBRE-DICIEMBRE
# 2019

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU. Bilbao

**www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia**

# CICLO **VOCES QUE CAMINAN** ZIKLOA

**Moderatzailea** / Moderador:
**Gabriel Villota Toyos: Irakaslea** / Profesor. **Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate saila** / Dpto. de Comunicación Audiovisual y Publicidad. UPV/EHU.

**Urriak 9-16-23** octubre 19.00

**Sala Baroja Aretoa**

CAS

Sarrera libre aretoa bete arte
Entrada libre hasta completar aforo

Bruce Chatwinek *The Songlines* bere liburuan kontatzen du aborigenek Australiako azalera erraldoian zehar egiten zituzten oinezko ibilbideen oroipena gordetzen zutela beren abestien bidez: berriro abestean, eta tribuko gainerako kideei erakustean, nolabaiteko soinu-mapa interpretatzea ahalbidetzen zuen baliabide mnemoteknikoa aktibatzen zuten, eta, horrez gain, moduren batean, kantuaren beraren sonoritatea komunitatearen materialtasun bihurtzen zuten, ahotsaren eta kontakizunaren bidez sortua. Ahots horien, aztarnen, arrastoari jarraituz eta horiek entzutean, beren errealitate latentea eguneratzea bezala litzateke.

Cuenta Bruce Chatwin en su libro *The Songlines* que los aborígenes iban dejando memoria de sus recorridos a pie por la inmersa superficie australiana a través de sus canciones: al volver a cantarlas, y al enseñárselas a los demás miembros de la tribu, no sólo se activaba un recurso mnemotécnico que permitía interpretar una suerte de mapa sonoro, sino que de algún modo la propia sonoridad del canto se constituía en materialidad de la comunidad, creada desde la voz y el relato.

Este ciclo de películas quiere dar cuenta de cómo a través del cine algunos realizadores han tratado de contarnos diferentes formas de desplazamiento de las voces por diversos espacios,

Filmen ziklo honek horren berri eman nahi du: jakinarazi nahi digu nola, zinemaren bidez, zinemagile batzuek ahotsen lekualdatzeen forma ezberdinei buruz hitz egin nahi izan diguten.

Aurkezten dugun ziklo hau proiektu zabalago eta handinahiago baten hasiera da; proiektu horretan, hain zuzen, ahotsen trazei jarraitu nahi diegu, espazioan eta denboran zeharreko beren lekualdatzeetan eta ikuspegi oso ezberdinetatik: artean nahiz antropologian, poesian edo biologian oinarrituta. Hitz batean, bi ideia hauek gurutzatzetik abiatzen den ikerketa bat da: alde batetik, ahotsaren soinua entzuteko beharrezkoa den isiltasunaren bilaketa, horren bidez bere aztarna berraktibatzeko, eta, bestetik, ibiliaren trazen, gorputzaren mugimenduaren eta horrek mugitzean egiten duen soinuaren miaketa, ahotsaren beharrezko euskarri gisa eta, halaber, muga horietara, muga-espazio horietara, hutsetara, zentzua sortzea posible izango den aldiri horietara iristeko beharrezko jarduera gisa.

**Gabriel Villota Toyos**

naturales o urbanos, y también cómo a través de esas voces han surgido distintas narrativas sobre el mundo en que vivimos.

El ciclo que presentamos es no obstante el comienzo de un proyecto más amplio en el que precisamente queremos seguir las trazas de las voces en sus desplazamientos espaciales y temporales desde muy distintos puntos de vista: procedentes tanto del arte como de la antropología, de la poesía o de la biología. Partimos del silencio necesario para escuchar el sonido de la voz, y así reactivar su huella, de un lado; y de la observación de las trazas del caminar, del desplazamiento del cuerpo y su sonido al moverse, del otro, como soporte necesario de la voz, y como actividad necesaria igualmente para alcanzar aquellos límites, aquellos espacios fronterizos, vacíos, aquellas periferias en las que será posible la generación de sentido.

Gabriel Villota Toyos

**Urriak 9** octubre ⌚ 19.00

# UCCELACCI E UCCELINI

## (PAJARITOS Y PAJARRACOS)

(V.O.S.E.)

Pier Paolo Pasolini •1966 • 89min

**Parte hartzaileak /** participantes:
Gabriel Villota Toyos / Santiago Pascual (Cine Fórum. UPV/EHU-Bizkaiko Esperientzia Gelak / Aulas de la Experiencia Bizkaia)




**Totòk, ogibidez nekazaria, eta Ninettok, bere semeak, bideari ekiten diote Erromaren inguruetan; luzamendu bat eskatzera doaz, familiaren finkaren gaineko zorra kitatu ahal izateko. Bidean, bizitzari eta heriotzari buruz hitz egiten dute biek ohiz kanpoko pertsonaia batekin: hitz egiten dakien bele batekin, hain zuzen. Filma Asisen, Toscanan, Erroman eta Erromako Fiumicino aireportuan grabatu zen, eta protagonisten ibilbidean oinarritzen da, landa eta hiriaren arteko hasierako lurretatik.**

Totò, agricultor de profesión, y su hijo Ninetto se ponen en camino, en los alrededores de Roma, para pedir una moratoria y así solventar una deuda que pesa sobre su finca. Durante el camino, los dos charlan sobre la vida y de la muerte con un insólito personaje: un cuervo que habla. La película fue filmada en localidades de Asís, Toscana, Roma y el Aeropuerto de Roma-Fiumicino, y se articula a través del deambular de los protagonistas por terrenos liminares entre el campo y la ciudad.

**Urriak 16** octubre 19.00

# GERRY

(V.O.S.E.)

Gus Van Santi •2002 • 103min



**Parte hartzaileak /** participantes:
Gabriel Villota Toyos / Norberto Albóniga (Cineclub FAS)

**Bi lagunek errepide-bidaia bat hasten dute, momentu jakin batean errepidea utzi eta ezezagunean barneratzea erabakitzen duten arte. Bide zehazturik gabe, bi «Gerry» horiek basamortuan galtzera eramango dituen itzulirik gabeko ibilbideari ekingo diote. Umore onak eta beren buruengan duten konfiantzak aurrera jarraitzeko indarrak emango dizkie, egun batean, bizi duten egoera dramatikoaz ohartzen diren arte; orduan, nahi gabe, bien arteko laguntasunaren sendotasuna proban jarriko dute.**

Dos amigos inician un viaje por carretera, hasta que en un momento dado deciden abandonarla e internarse en lo desconocido. Sin un camino definido por delante, estos dos «Gerrys» se lanzan a una travesía sin retorno que les llevará a perderse en el desierto. Pero el buen humor y la confianza en ellos mismos les empujarán a seguir adelante hasta que, un día, se dan cuenta de su dramática situación y, sin quererlo, ponen a prueba la robustez de su amistad.

cineclubfas

**Urriak 23** octubre 19.00

# MIMOSAS
(V.O.S.E.)



Oliver Laxe •2016 • 96min

**Parte hartzaileak /** participantes:
Gabriel Villota Toyos / Iratxe Fresneda. Irakaslea / Profesora- Errealizadorea/ realizadora. Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate saila. Dpto. de Comunicación Audiovisual y Publicidad. UPV/EHU

**Filmak Shakiben istorioa kontatzen du. Shakib Marokoko mendietara bidaiatzen duen gizon modernoa da, eta, bertan, beste garai historiko bateko bi bidelapurrekin egiten du topo: xeke zahar baten gorpua Sijilmasa hiri zaharrera eramaten ari dira, haren pertsona maiteen alboan deskantsatu dezan.**

El filme relata la historia de Shakib, un hombre moderno que viaja a las montañas de Marruecos y se encuentra a dos bandidos de otra época histórica que llevan el cadáver de un anciano jeque camino a la antigua ciudad de Sijilmasa con el propósito de permitirle el descanso al lado de sus seres queridos.

# ZINEBIEXPRESS 2019

**Bilboko film labur azkarren lehiaketa**

Consurso de cortometrajes rápidos de Bilbao

**Azaroak 2-7** noviembre




**Bilboko film labur azkarren lehiaketaren 12. edizioa ospatzen da azaroaren 2tik 7ra. Aurten ere, profesional adituaz osatutako epaimahai batek hiru sari banatuko ditu. Hauek dira lehiaketaren antolatzaileak: ZINEBI, EHUkultura-Bizkaia, EHU/UPVko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea eta Arte Ederren Fakultatea, IMVAL, EHZE eta Tartanga LHII.**

**Izen-ematea:** azaroak 2. Campos Antzokiaren sarreran

**Sari banaketa:** azaroak 7, 20:00, Golem Alhóndiga Bilbao, Azkuna Zentroa.

La 12ª edición del concurso de cortometrajes rápidos de Bilbao, ZINEBIEXPRESS, se celebrará del 2 al 7 de noviembre. Un año más, un jurado formado por profesionales expertos/as repartirá tres premios entre los y las participantes. El certamen está organizado por ZINEBI, EHUkultura-Bizkaia, la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación y la Facultad de Bellas Artes de la Universidad del País Vasco UPV/EHU, IMVAL, ECPV y CIFP Tartanga.

**Inscripciones:** 2 noviembre. Entrada del Teatro Campos, Bilbao.

**Entrega de premios:** 7 noviembre, 20:00, Golem Alhóndiga Bilbao, Azkuna Zentroa.

**Informazio gehiago/** más información en: **www.zinebi.eus**

# mikroesZena

**Antzerkia / dantza / musika**
Teatro / danza / música

**Azaroak 14** noviembre

**Salas Chillida / Oteiza Aretoak**

**Sarrera libre aretoa bete arte**
Entrada libre hasta completar aforo

## Zom2

**Antzerkia** / teatro

19.00




Testua: **Mikel Fernandino**
Antzezleak eta zuzendaritza: **Aitor Fernandino eta Patricia Urrutia**.
Iraupena: **15 minutu.**

Ikuskizun ikaragarria zela pentsatu zuen Ainarak: eraikuntza zahar eta herdoildu hori bertan behera erortzen ikustea. Etorkizun loratu bati bidea emango dion hildako bat besterik ez baitzen! Baina batzuetan hildakoak bakean uztea da aukerarik hoberena.

# Buenas noches, madre

19.30

**Antzerkia** / teatro




Compañía: **Cuatrocajas.**

Autor y director: **Unai Izquierdo.**

Intérpretes: **Itziar Lazkano y Diego Pérez.**

Duración: **20 minutos**

«Buenas noches, madre» cuenta, en un cerrar de ojos, un viaje que habla de la falta de comunicación, de los encuentros y desencuentros que recorren a través de sus vidas una madre y un hijo. Una pieza sobre la soledad, el amor, las dudas, las preocupaciones... con una parada obligatoria, la de las despedidas. El trabajo es una reflexión acerca de lo paradójico de la relación más profunda, intensa y compleja del ser humano y tan común y universal.

# Gorpuztu

20.00

Dantza / danza



**Sortzailea/** creación: **Eva Guerrero**
**Antzezlea** /intérprete: **Garazi Lopez de Armentia**
**Koreografia** /coreografía: **baterako sorkuntza /creación colectiva**
**Iraupena** /duración: **20 minutu/20 minutos**

Gorpuztu dantza garaikideko ikuskizuna da, zuzeneko musikaz lagundua. Ikuskizunaren gai nagusia orekaren bilaketa da.

Borroka bat da, lasai egoteko, zarata isilarazteko, karga eta errua arintzeko eta animaliak lasai lo egiteko leku bat aurkitzeko borroka.

Erlijio batzuetan eta une jakin batzuetan gorputza nola erabiltzen den ikusteko eginiko ikerketa bat du abiapuntu.

Gorpuztu sortzeko, gorputza hainbat zatitan bereizi da, otoitz egiteko unean egiten diren mugimenduak behatu dira eta zenbait erlijiotan presente dauden kontzeptuak landu dira, hala nola errua, penitentzia, transzendentzia, sumisioa eta abar.

Gorpuztu es un espectáculo de danza contemporánea con música en directo que habla sobre la búsqueda del equilibrio.

Es una lucha por estar en calma, por silenciar el ruido, por aligerar la carga y la culpa, por encontrar un lugar donde el animal duerma tranquilo.

Nace de una investigación sobre el uso del cuerpo en determinados momentos en determinadas religiones.

Dividiendo el cuerpo en varias partes, observando acciones de movimiento a la hora del rezo y pasando por conceptos como culpa, penitencia, trascendencia, sumisión... presentes en diferentes religiones, nace Gorpuztu.

# Beñat Antxustegi

20.30

**Musika** / música




Physis versus Nomos Beñat Antxustegi gitarjole donostiarraren bakarkako proiektu musikala da. 2010 urtetik 4 disko argitaratu ditu. Musika intimista egiten du, folk-psikodelikoa bezala deskribatua izan dena sarritan. Azkenekoa den «Arraro nioenean» lanerako banda osatu du eta Eneko Sierra (Saxofoia), Xalba Ramirez (Bateria) eta Unai Pelayok (Baxua) grabatu dute.

Argazkiaren egilea: Amaia Oca

# Y TODO POR AMOR

**Antzerkia** / teatro

**Azaroak 27** noviembre 19.30

**Sala Mitxelena Aretoa**
**Sarrera libre aretoa bete arte** / Entrada libre hasta completar aforo

CAS



Argazkia/foto: Tere Ormazabal

**Itziar Lazkanok, muntaia honen zuzendari irmoak, bidaia bat antolatu nahi du publikoarekin, emozioek sortzen duten nahasmenean barrena. Alabaina, ikuslearen konplizitatea bilatzen du gai erabat kaotikoetan ere: maitemina, ulertezintasuna, gizarte rolak eta itxaropen faltsuak. Eta hori guztia eszenen eta errezitazioen jolas baten bidez. Zure memoriak sasoi onean egon beharko du horiekin guztiekin zerbait eraikitzeko.**

**Obra honetan ez duzu konponbiderik edo bukaerarik**

Itziar Lazkano, la mano firme que dirige el montaje, busca organizar con el público un viaje por el desconcierto de las emociones, pero también busca tu complicidad en temas tan caóticos como el enamoramiento, la incomprensión, los roles sociales o las falsas expectativas. Y todo a través de un juego de escenas y recitados que solo la buena forma de tu memoria puede ayudar a construir.

No esperes soluciones, ni desenlaces porque solo encontrarás caminos, palabras

aurkituko, baizik eta bideak, hitzak eta neurtitzak. Ez duzu musikalik aurkituko, garai bateko hit-ak jotzen dakien banda bat badago ere. Ez duzu koreografia distiratsurik aurkituko, baina begiratu koreografiei ispiluari bezala. Ez duzu logikarik aurkituko, Maitasuna aletzen duten testuak baino ez.

Eseri eroso eta sentitu eroso. Arreta jartzen baduzu eta erlaxatuta eta arriskatzeko prest bazaude, gurekin batera bidaiatu ahal izango duzu Maitasuna izeneko poliedro konplexua osatzen duten linea horietan –batzuetan erpinak, besteetan ertzak–.

Ongi etorria zara. Dena da Maitasunagatik.

y versos; no esperes un musical aunque haya una banda que sabe tocar antiguos hits; no esperes rutilantes coreografías pero mírate en ellas como en un espejo; y no esperes una lógica, una respuesta donde solo hay textos que desgranan el Amor.

Siéntate cómodo. Siéntete cómodo. Si estás atento, relajado y quieres arriesgarte, podrás viajar con nosotros por estas líneas, a veces vértices, a veces aristas, que conforman el lioso poliedro del Amor.

Sé bienvenido. Es todo por Amor

Zuzendaria eta antzerkigilea/dirección y dramaturgia: **: Itziar Lazkano**
Zuzendariaren laguntzailea/ ayudante de dirección: **María Cerezuela**
Testuak/ textos: **Quim Monzó, Karmelo C. Iribarren, Roger Wolfe**
Antzezleak/ intérpretes: **Ana María Llamas, Ainhoa Bazterrica, Mikel Ibáñez, Iñigo Sourrouille**
Musikariak/músicos: **3 Devils**
Gitarra/ guitarra: **Jorge Gros**
Perkusioa eta ahotsa/ percusión y voz: **Eduardo Landeta**
Ahotsa eta gitarra/ voz y guitarra: **Irrintzi Ibarrola**
Argiak eta errejidore-lanak/ iluminación y regiduría: **CIFP Tartanga LHII, Irune Suso, Koldo Benito, Iker Muruaga**
Laguntzaileak/ colaboradores: **Antonio Sourrouille, Miriam Ocariz, Eduardo Sourrouille, Patxo Landa, Jon Casamayor, Teresa Ormazabal, Felipe Loza, Sucesores de Aldama**
Ekoizpena/ producción: **7GRADOS**

# TAIA DANSA

DANTZALDIA 2019

## DANCE GENERATION

**Tailerra eta dantza emanaldia/** taller y danza

**Tailerra/**taller:

**Abenduak 9-10-11** diciembre

16.00-19.30

CAS

**Sala Oteiza Aretoa**

**Dantza-tailerraren azkeneko lanaren aurkezpena**

Presentación del trabajo final del taller de danza

**Abenduak 12** diciembre

19.00

**Sala Mitxelena Aretoa**

**Sarrera libre aretoa bete arte /** Entrada libre hasta completar aforo




**MUGIMENDU TAILERRA: sormen talde lan baten parte hartu eta disfrutatu nahi duten pertsona guztiei zuzenduta. Ez da aurretiko formaziorik behar.**

TALLER DE MOVIMIENTO: dirigido a todas aquellas personas interesadas en participar y disfrutar de una creación colectiva. No se requiere formación previa.

**Informazioa eta izen-ematea /** Información e Inscripción:
**La Fundición - 944753327**

**Doako izen-ematea. Beharrezkoa da 3 saioetan eta aurkezpenean parte hartzea.**
Inscripción gratuita. Disponibilidad para las 3 sesiones y la presentación.

*Dance Generation* proiektuak 25 bat interpreteren enkontru bat proposatzen du, parte-hartzaileek edozein adinetakoak izanda (hamar urtetik hasita eta adin mugarik gabe). Hainbat jatorritako 25 parte-hartzaileek Taiat Dansako Meritxell Barberà eta Inma García koreografoekin lan egingo dute, erlazio batzuk jokoan jarriz –iraganaren eta orainaren artekoa, memoriaren eta ekintzaren artekoa, larrialdiaren eta eskarmentuaren artekoa–, eta, nazioarteko topaketa honen fruitu, belaunaldien arteko lan koreografikoa eskainiko diote publikoari.

**Meritxell Barberà eta Inma García**

Valentzia hirian titulatu ziren Dantza Klasikoan eta Garaikidean, eta beren konpainia —Taiat Dansa— fundatu zuten 2003an.

*Dance Generation* propone un encuentro de un grupo de alrededor de 25 intérpretes, a partir de diez años hasta personas mayores, sin límite de edad. Los 25 participantes de diferentes procedencias van a trabajar con las coreógrafas de Taiat Dansa, Meritxell Barberà e Inma García, poniendo en juego la relación entre pasado y presente, entre memoria y acción, entre emergencia y experiencia, para proponer un trabajo coreográfico fruto de este encuentro intergeneracional abierto al público.

**Meritxell Barberà e Inma García**

Tituladas en Danza Clásica y Contemporánea en la ciudad de Valencia, fundan su propia compañía, Taiat Dansa, en 2003. ania, Suiza, Reino Unido y EEUU.

# TRACKING BILBAO 2019

## Master classes. Paco Plaza / Carlos Vermut
## Zinema zuzendariak / directores de cine

Abenduak 16 diciembre 18.00

**Sala Mitxelena Aretoa**
**Sarrera libre aretoa bete arte** / Entrada libre hasta completar aforo

CAS







**TRACKING Bilbao**
diziplina anitzeko adierazpen askoren erakusketa da eta zuzenean dago lotuta aro digitaleko kultura herrikoiarekin.

Ekitaldi ezberdinez beteriko egitarau batekin datozte (workshop-ak, mahai-inguruak, proiekzioak, hitzaldiak, klase magistralak, aurkezpenak, show-ak etb.). Gainera iharduera guzti hauek gonbidatu jankitsuen eskuz burutuko dira, jadanik finkatutakoak zein talentu barriak, teoritzaileak eta sortzaileak, azken finean baliabideen nahasketek ezkaintzen duten aukeren eta sarearen erabilera inspirazioi iturri zein agente banatzaile bezalaren irudia izago dira.

TRACKING Bilbao
es una muestra de diferentes formas de expresión en torno al concepto multidisciplinar, directamente ligadas a la cultura popular en la era digital.
El evento cuenta con una variada programación (workshops, mesas redondas, proyecciones, charlas, clases magistrales, presentaciones, shows, etc.) de la mano de invitados especializados, ejemplos afianzados y nuevos talentos, que representan las múltiples posibilidades del cruce de medios y la utilización de la red como fuente de inspiración y agente de distribución.

TRACKING BILBAO

# AKELARRE

**Zinea** / cine

**Pedro Olearekin topaketa / encuentro con Pedro Olea**

**Abenduak 19** diciembre 18.00

**Sala Baroja Aretoa**

**Sarrera libre aretoa bete arte** / Entrada libre hasta completar aforo

CAS




Pedro Olea •1984 • 93min

En el siglo XVII, el señor feudal Don Fermín emprende una cruzada para erradicar la brujería en una pequeña aldea de Navarra, con la ayuda de un inquisidor y en nombre de Dios. Sin embargo, el verdadero objetivo de Fermín es acabar con Unai, un campesino que se opone a su tiranía y cuya amante tuvo relaciones con el hijo del cacique.

# MISSISSIPPI QUEEN & THE WET DOGS

Gabonetako kontzertua / Concierto de Navidad
Abenduak 19 diciembre 20.00

**Sala Mitxelena Aretoa**
Sarrera libre aretoa bete arte / Entrada libre hasta completar aforo



Ahotsa / voz: **Inés Eleuteria**
Gitarra/ guitarra: **Aitor Zorriketa «The Malamute»**
Bateria/ batería: **Ander Alonso**
Baxua / bajo: **Kike Mora**
Teklatuak/ teclados: **Mikel Núñez**

Mississippi Queen & The Wet Dogs taldeak publikoa bereganatzeko osagai guztiak ditu: musika beltzaren hainbat adar biltzen dituen errepertorioa, banda gidatzen duen ahots paregabea eta publikoa hunkitzen eta arrastatzen duen taldeko indarra.

Oraingoan errepertorio berezia aurkeztuko dute: Gabonetako abestiak, musika beltzeko klasikoak eta txalotua izan den beren «Try Me» diskoko abestiak ere bai.

Mississippi Queen & The Wet Dogs taldearen helburua da estatuko banda berri goraipatuena izatea musika beltzaren arloan. Zuzeneko paregabea dute, eta askotariko soula eskaintzen dute; dantzatu, abestu eta gozatu egingo duzu, eta, batez ere, hunkitu egingo zara. Ez galdu aukera.

Mississippi Queen & The Wet Dogs tiene todos los ingredientes para conquistar al público: un repertorio que abarca muchas ramas de la música negra, una voz excepcional al frente de la banda y una fuerza conjunta sobre el escenario que emociona y arrastra.

Para esta ocasión, presentarán un repertorio especial que incluirá temas navideños, clásicos de la música negra y canciones propias de su aclamado disco, «Try Me».

En definitiva, Mississippi Queen & The Wet Dogs se propone ser la banda revelación de la música negra nacional. Su directo es una cita obligada con el soul más versátil; te hará bailar y cantar, te hará gozar y de seguro te emocionará. No te los pierdas.

# EHUorkestra sinfonikoa



**UPV/EHUren helburuetako bat da kultura sustatzea, hala erakunde barruan nola erakundetik kanpo. Ildo horretan, errektorego taldeak unibertsitatearen orkestra**

Uno de los fines de la UPV/EHU es fomentar la cultura dentro y fuera de nuestra institución. En este marco, en junio de 2016 el Equipo Rectoral se planteó la creación de una Orquesta sinfónica propia, al

sinfonikoa eratzea pentsatu zuen 2016ko ekainean, beste unibertsitate batzuk egin duten bezala.

Gure unibertsitateko edozein kidek har dezakete parte, baina EHUorkestra sinfonikoa irekita dago, baita, unibertsitatekoak ez direnei, proiektu horretan parte hartzea nahi duten guztiei.

Entseguak ostegunetan izaten dira, 17:00etatik 20:00etara, Leioako Campuseko Areto Nagusian.

Parte hartu geure orkestran!

igual que las existentes en otras universidades.

Puede participar cualquier persona de nuestra comunidad universitaria, pero EHUorkestra sinfonikoa también está abierta a la participación de cualquiera, externo a la Universidad, que quiera colaborar en este proyecto.

Los ensayos son los jueves, de 17 a 20 h, en el Aula Magna del Campus de Leioa.

¡Anímate a participar en nuestra orquesta!

**www.ehu.eus/es/web/bizkaia/orkestra-sinfonikoa**

# EsZena

UPV/EHUko kideek eta kide ohiek sustatzen dituzten jarduera eszenikoak dinamizatu eta hedatzeko proiektu bat da, ehuKultura-Bizkaiak antolatzen duen programazioan parte hartuta.

Arte eszenikoetako konpainiek parte hartu ahalko dute ehuesZenan, betiere gutxienez konpainiako kideetako bat UPV/EHUko kidea bada edo izan bada azken lau urteetan (ikaslea, irakaslea, ikertzailea, AZPkoa edo ehualumni).

Erakusten diren proposamen guztiekin batera eztabaida foro bat, antzeztutako gaian sakontzeko eta konpainiako kideen eta ikusleen arteko partaidetza sustatzeko. Dinamika hauek Bizkaiko Kultur Gestiorako Bulegoak antolatuko ditu.

Es un proyecto de dinamización y proyección de actividades escénicas promovidas por los miembros y ex miembros de la UPV/EHU a través de su participación en la programación que se desarrolla desde ehuKultura-Bizkaia.

Podrán participar en esta iniciativa las compañías de artes escénicas en las que al menos uno de sus integrantes pertenezca o haya pertenecido en los últimos cuatro años a la UPV/EHU (Alumnado, Personal Docente e Investigador, Personal de Administración y Servicios o ehualumni) .

Las propuestas representadas se complementarán con una sesión de debate o mesa redonda, cuya finalidad será ahondar en la temática de lo exhibido y propiciar la participación entre los miembros de la compañía y el público asistente. Estas dinámicas serán organizadas por la propia Oficina de Gestión Cultural de Bizkaia.

Antzezlanak Bizkaia Aretoan aurkeztuko dira, ikasturtean zehar, eta gehienez ere 2.000 euroko aurrekontuarekin ekintza bakoitzeko.

Las representaciones se llevarán a cabo en el Bizkaia Aretoa, durante el curso académico, y con un presupuesto máximo por iniciativa de 2.000 €.

**www.tinyurl.com/esZena**

## Nola jaso 'EHUkultura-Bizkaia'ren informazioa zure posta elektronikoan?

UPV/EHUk Bizkaian antolatzen dituen kultur jarduerei buruzko informazioa jasotzeko zerbitzuan alta ematea doan nahi duten lagunek webgunean eman behar dute izena esteka honen bidez:

## ¿Cómo recibir información de EHUkultura-Bizkaia en tu email?

Aquellas personas que quieran darse de alta gratuitamente en el servicio de recepción de información de las actividades culturales de la UPV/EHU en Bizkaia, solo tienen que suscribirse en la web, a través del enlace:

**www.tinyurl.com/alta-ehukultura-bizkaia**




**Kultur Gestiorako Bulegoa**
Oficina de Gestión Cultural

**Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**
Abandoibarra, 3 | 48009 Bilbao
Tf.: +34 94 601 21 04
+34 94 601 71 42
ehukultura-bizkaia.info@ehu.eus
**www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia**